



GIPUZKOAKO BOLA ETA TOKA FEDERAZIOA
FEDERACION GIPUZKOANA DE BOLOS Y TOKA

BOLA JOKOAREN ARAUDIA

***BOLATOKI
MODALITATEA***



BOLA JOKU ARAUDIA.

BOLATOKI MODALITATEA

HITZAURREA

Jakin behar da, inongo kiroletako Lege edo Arau kodek ez duela lortu perfekziorik, kirol horren egoera edo gertaera posible guztiei aurre egiteko modukoa izateko. "Bolatoki" modalitateko Bola jokoko Araudia ez da salbuespen bat.

Gerta daiteke araudi honetan agertzen ez den egoera edo gertaera bat gauzatzea. Orduan gogoratu beharko da, Kirol guztietarako dauden Arauak, guztiaren gainetik, kirolariaren jarrera ona (Joko Garbia) egongo delakoan egindakoak direla, eta arau jakin bat egon ezean, norberaren zentzu komuna erabiliz, irtenbide bat bilatuko beharko dela, inpartzialtasun osoa erakusten duena.

I. TITULUA. JOKOAREN OROKORTASUNAK

1. ARTIKULUA

"Bolatoki" modalitateko Bola Jokoa bolatokian jokatzeko den kirola da. Honen helburua bolarekin ahalik eta birla gehien botatzea da, Araudi honetako arauak errespetatuz beti.

2. ARTIKULUA

"Bolatoki" modalitateko Bola jokalaria gutxienez ahalmen fisiko batzuk izan beharko ditu, honako ekintza hauek burutzea eragozten ez diotenak:

- 1.1. Lurretik bola hartu eta altxatzea
- 1.2. Gorputzarekin eta hankekin egiten den bulkadaz baliatzea.
- 1.3. Besoarekin gorputzarekiko paraleloa den atzeraka eta aurrerakako mugimendua egitea, eta bola birlak dauden lekura jaurtitzeko eta hauek botatzea.

Bola jaurtitzeko mugimendu eta jarrera egokiak 2.1. irudian ikus daitezke.

2.1. IRUDIA. Bola jaurtitzeko mugimendu eta jarrera egokienak



3. ARTIKULUA

Bola material homogeneozko esfera bat da. Hau eusteko eta botatzeko heldulekua esferari materiala kenduz egingo da. Honekin bolaren grabitate zentroa bere zentro geometrikotik aldentuko da, eta jaurtitakoan arku moduko bidea egingo du.

Arku formako bide hori egitea errazteko, eta bola birlak dauden lekura iristeko eta hauetako ahalik eta gehien botatzeko, efektua eman beharko zaio, "gurpila" edo "higiera".

"Gurpila" duen bola, erlojuaren kontrako norabidea duen efektua edo errotazio mugimendua daraman bola da.

"Gurpila" bola askatzean eskuarekin eta eskumuturrarekin egin behar den mugimendu batekin lortzen da, eta hau ikasteko praktikatzea behar-beharrezkoa da.

4. ARTIKULUA

Bolatoki barruan Gehienez lau pertsona egongo dira:

- Bere tiraldia egiten ari den bolaria.
- Birlen lekuan bi birla jartzaile: botatako birlak jartzen eta bola bolariari bueltatzen.
- Oholeko epailea.

5. ARTIKULUA

Tiraldia edo jaurtiketa: Bola botatzea ahalik eta birla gehien botatzeko helburuarekin. Eraitza 0 eta 9 tartekoa izango da, araudia betez botatako birlen kopuruaren arabera.

Lehiaketa edo jardunaldia: Egunean zehar jokaturako txapelketa, saio jarraian edo zatituan. Irabazlea tiraldian puntuazio onena lortzen duena izango da, edo berdinketarik egongo balitz, hura hausten duena.

Txapelketa: jardunaldi bat edo gehiagor osaturako norgehiagoka, irabazlea jardunaldi guztietako puntuazioaren batuketa eginda, birla gehien bota dituen izango da.

II. TITULUA. BOLATOKIAREN EZAUGARRIAK

1. ATALA.- Bolatokiko zatiak

Bolatokia, bolatan jokatzeko eremua, zati hauez osatuta dago:

- Prestatzeko lekua
- Irteera ohola
- Joko eremua
- Birla lekua
- Jasotzeko lekua

2. ATALA.- Prestatzeko lekua


6. ARTIKULUA.- Prestatzeko lekuaren ezaugarriak

Prestatzeko lekua bolaria tiraldia egiteko prestatzen den lekua da, eta bola jaurtitzeko bulkada hartzeko lekua. Leku hau hormigoi armatuzkoa, harrizkoa edo antzeko material batekoa izango da, eta ez irrist egiteko material bat izan beharko du.

7. ARTIKULUA.- Prestatzeko lekuaren tamaina

Eremu honek gutxienez 2,00 metroko luzera izan beharko du, baina 3,00 metrokoa izatea gomendatzen da. Luzera prestatzeko lekutik hasita, oholaren hasierara arte neurtutako zatia izango da (ikusi 7.1. irudia).

7.1. IRUDIA. Prestatzeko lekuaren tamaina



3. ATALA.- Irteera ohola

8. ARTIKULUA.- Irteera oholaren ezaugarriak

Irteera oholak honako ezaugarriak izango ditu: egurrezkoa izango da, leuna, irtengunerik gabekoa; prestatzeko lekuaren eta birla lekuaren maila berean egongo da.


9. ARTIKULUA.- Irteera oholaren neurriak. Luzerak

Bere neurriak honakoak izango dira (ikusi 9.1. irudia):

- Luzera: 5,50 eta 6,00 metro artekoa.
- Zabalera: 22 eta 24 cm artekoa.
- Lodiera: > 5 cm.

Irteera oholaren eskuin hegalararen eta ohol perimetralaren arteko distantzia 0,63 eta 0,65 m artekoa izango da, irteera oholaren zabaleraren arabera.

9.1. IRUDIA. Irteera oholaren neurriak



10. ARTIKULUA.- Irteera oholaren ondoko topeak

Ohol honen irteeraren eskuinean eta ezkerrean, bi tope egon beharko dira, hauek bolariak bola jaurtitzean erabiltzen duen bulkada eusteko erabiliz (ikusi 12.1. irudia).

11. ARTIKULUA.- Irteera oholaren ondoko topeen posizioa

Ezkerreko topea oholaren iskinetik 20 cm-ra egongo da.

Eskuineko topea oholaren iskinetik 25 cm-ra egongo da.


Bi peralteak oholetik 10 cm-ra egongo dira.

12. ARTIKULUA.- Topeen neurriak

Topeen neurriak honakoak izango dira (ikusi 12.1. irudia):

- Luzera: 30 cm
- Zabalera: 4 cm
- Altuera: 3,5-4 cm

12.1 IRUDIA. Topeen kokalekua eta neurriak



13. ARTIKULUA.- Topeen materiala

Topeak hormigoizkoak, harrizkoak, burdinazkoak edo gomazkoak izan daitezke.

4. ATALA.- Joko eremua


14. ARTIKULUA.- Ezaugarriak

Joko eremuaren azaleko kapa, harrobiko hareazkoa, galbahetua eta 20 bat cm-ko lodierakoa izan beharko da, material ezberdinetako kapa batzuen gainean dagoena.

Terrenoa era ezberdinetako izan daiteke, bolatokiaz arduratzen den pertsonaren arabera. Hala ere, bolak arku formako ibilbidea egiteko modukoa izan beharko da, birlen lekura iristeko. Ohiko ibilbide batean eskuineko ohola jo beharko luke, ondoren birlak joz.


Jarraian bolak joko eremuan egin ditzakeen ibilbide ezberdinak ikus daitezke (ikusi 14.1. irudia).

14.1. IRUDIA. Bolatokia itxuratzeko modu ezberdinak.



Bolatokiak eskuinean aldapa moduko izan ohi du, bolaren arku moduko ibilbidea eragiten duena (ikusi 14.2. irudia).

14.2 IRUDIA. Bolatoki bateko zeharkako ebakera




Bola itzultzeko ohola, gomazko material batez estalita egon daiteke, edo honekin ordeztu ahal izango da. Gehienez 35 cm-ko zabalera izango du.

15. ARTIKULUA.- Neurriak

Bolatokiak, gutxienez 22 metroko eta gehienez 25 metroko luzera izango du, 23,5 metroko luzera gomendatzen da. Luzera irteera oholetik hasi eta harlauzaren bukaerara artekoa izango da.

Ezkerreko ohol perimetralaren barnealdetik hasita, eskuineko ohol perimetralaren barnealdera dagoen distantzia (zabalera) 1,75-3,00 metro bitartekoa izango da.

15.1. IRUDIA. Bolatokiaren neurriak



5. ATALA.- Birla lekua

16. ARTIKULUA.- Ezaugarriak

Birla lekuak honako ezaugarriak izango ditu: leuna eta irtengunerik gabekoa izango da. Oholaren hasieratik, harlauzaren hasierara arte, milako 3ko desnibela egongo da.

Oinarria gogorra izango da, hormigoi armatuzkoa, zeramikazkoa edo edozein harrizko materialezkoa.

Ertz irten bat izan ahalko du iriste eremuan; ertz irten honek gehienez 5 cm-ko lodiera izan dezake, eta bere helburua bolak kolpean duen alderatzea moteltzea da. Honen materiala egurra edo goma izango da, eta harlauzari tinko lotuta egon beharko da, maila berean. Ertz irtena harlauzaren zatitzat hartuko da.

17. ARTIKULUA.- Neurriak

Birla lekua gutxienez 1,40m x 1,30m-koa izan beharko da (ikusi 28.1. irudia). Birla lekuaren eta jasotzeko lekuaren arteko desnibela gutxienez 15 cm-koa izango da.

18. ARTIKULUA.- Txapak

Birlak jartzeko 9 txapa egon beharko dira, birla bakoitzeko bat.


Txapek hiru ilara osatuko dituzte, hauen artean 50 cm-ko tartearekin, guztiek beraien artean karratu formak eratuz.

1. eta 2. birlen tokiak, 140 mm-ko luzerako eta 70 mm-ko zabalerako lauki zuzenak izango dira. (ikusi 18.1. irudia) eta marka batzuk eduki ahal izango ditu birlak jartzea errazteko.

Gainerako txapak 70 mm-ko diametroko borobilak izango dira; txaparroarena, berriz, birla lekutik kanpo egongo da, eta 35 mm-ko zirkunferentzia izango du.

Birla lekuko txapa guztiak lurrera ondo lotuta egongo dira, eta harlauzaren maila berean egon beharko dira.

18.1. IRUDIA. Birla harlauzaren barruko txapen arteko tarteak



6. ATALA.- Jasotzeko eremua

19. ARTIKULUA.- Ezaugarriak


Birla lekuak honako ezaugarriak izango ditu: leuna izango da, irtengunerik gabekoa eta nibelatuta egongo da, birla lekuaren azpitik 15 cm.

Oinarria gogorra izango da, egurrezkoa, gomazkoa edo bolaren eta birlen kolpeak moteltzea ahalbidetzen duen materialezkoa.

20. ARTIKULUA.- Neurriak

Eremu honek gutxienez birla lekuaren harlauzaren neurria izan beharko du (ikusi 28.1. irudia). Zabalera joko eremuaren zabalera berdina izango da.

20.1. IRUDIA. Birla harlauzako txapen arteko tartea



III. TITULUA. JOKOKO ELEMENTUAK

Jokoko elementuak honakoak izango dira:

1. ATALA.- Bola

21. ARTIKULUA.- Bolaren ezaugarriak

Bola, esfera bat izango da, leuna, berdina eta deformaziorik gabea, plastikozkoa, trabarik gabea eta bi zuloduna, eusteko egina, hau da, heldulekua (ikusi 21.1. irudia).

21.1. IRUDIA



22. ARTIKULUA.- Materiala

Araudi hau indarrean jartzen denetik, bolak egiteko materiala plastikoa izango da, honako plastikoa:

- Nylona (1,15 gr/cm³ dentsitateduna).
- Polipropileno (0,90 gr/cm³ dentsitateduna).

23. ARTIKULUA.- Bolaren neurriak

Bi motatako bolak egongo dira, diametroaren eta pisuaren arabera ezberdinak (ikusi 23.1. taula)

23.1. TAULA Bolaren diametroa eta pisua

DIAMETROA	PISUA	MATERIALA
250 mm	8,300 kg (±3%)	NYLONA (Dentsitatea: 1,15 gr/cm ³).
250 mm	7,000 kg (±3%)	POLIPROPILENOA (Dentsitatea: 0,90 gr/cm ³)

24. ARTIKULUA.- Heldulekua

Heldulekua bola eusteko bolaren zatia da. Bi zuloz osatuta dago, bietatik txikiena hatz lodia sartzeko da eta bietatik handiena, gainerako lau hatzak sartzeko (ikusi 24.1. irudia).


24.1. IRUDIA. Heldulekua agertzen den bi zulodun bola bat



25. ARTIKULUA.- Heldulekuaren neurriak

25.1. irudian heldulekuaren neurriak ikus daitezke.

25.1. IRUDIA. Heldulekuaren neurriak



2. ATALA.- Birlak

26. ARTILULUA.- Birlen ezaugarriak

Birlak tornuan egindako plastikozko pieza gogorrek dira, forma berezi bat dutenak. Jokoan 9 birla behar dira, neurri berekoak, eta txikiago bat, txaparro izenekoa.


27. ARTILULUA.- Birlen materiala

Araudi hau indarrean jartzen denetik aurrera, birlak egiteko materiala Poliamida PA izango da, $1,15 \text{ gr/cm}^3$ -ko dentsitateduna.

28. ARTILULUA.- Birlen neurriak

Birla bakoitzaren neurriak 28.1. irudian agertzen dira.

28.1. IRUDIA. Birlen eta txaparroaren neurriak.




29. artikulua – Birlen kokalekua

Birla guztiak, txaparroa barne, zutik jarriko dira joko eremuan egongo diren txapen barruan, harlauza gainean (ikusi 4.4. irudia) eta txaparroaren lekuan.

Birla lekuan jarritako 9 birlak, lauki forma duen 3x3-ko formazioan jarri beharko dira, eta bata bestearekin lekuz aldatzeko moduan egon beharko dira.

Birla bakoitza identifikatzeko asmoz, ondoren agertuko da modu tradizionalan nola zenbatzen diren:

29.1. IRUDIA. Birla lekuan, birlak jarri beharreko modua.




29.2. IRUDIA. Birlak bolatokian jarrita.



30. ARTIKULUA.- Txaparroaren kokalekua

Txaparro birla, 8. birlaren ezker aldeko hertzeko erdiko puntua, eta irteerako oholaren bukareako ezkerreko izkinak lotzen dituen lerroaren gainean jarriko da, 8. birlatik 6,00 metrora (Ikusi 30.1).

30.1. IRUDIA. Txaparroaren kokalekua bolatokian.



IV. TITULUA. JOKORAKO ARAUAK

31. ARTIKULUA

Bolariak ezin izango du bere gorputz atal bakarrarekin ere joko eremua ukitu edo zapaldu, bolak txaparroa dagoen lekua pasa aurretik. Hau eginez gero, tiraldia txaparrotzat hartuko litzateke, hau da, tiraldi horren balioa Okoa izango litzateke.

32. ARTIKULUA

Bolariak bola jaurtitakoan, bolak lehenik eta behin ohola ukitu beharko du. Ohola ukitu gabe bolak lurra ukituko balu, tiraldia txaparrotzat hartuko litzateke, hau da, tiraldi horren balioa Okoa izango litzateke.

33. ARTIKULUA

Bola jaurtitakoan, honek txaparroa joz gero, tiraldiaren balioa Okoa izango litzateke, nahiz eta bolak ondoren beste birlak bota.

34. ARTIKULUA

Bolak ezkerreko ohol perimetrala joz gero, jaurtiketaren edozein unetan, tiraldia txaparrotzat hartuko da.

Bolatokian tiraldia behar bezala joan dadin oztopatzen duen elementurik agertuz gero, kendu ezin dena, epaile nagusia izango da tiraldiaren aurretik jokaldi horrekin zer egin erabakiko duena.

Adibide bat honako hau izan ohi da: bola bueltatzeko lekuan dagoen goma denbora pasa ahala altxa egiten da, eta ondorioz, batzuetan bolak ez du ezkerreko ohol perimetrala ukitzen eta bolak, puntuaketari dagokionez, ibilbide onuradunagoa egiten du.

35. ARTIKULUA

Bolariak behin bola jaurtitakoan, birla lekura iritsi aurretik bola txaparroaren ezkerretik pasatzen bada, tiraldia txaparrotzat hartuko da, nahiz eta ondoren beste birlak bota.

V. TITULUA. JOKALDIEN BALORAZIOA

36. ARTIKULUA

Jardunaldiaren emaitza (edo lehiaketarena), bolari bakoitzaren jaurtiketa guztien batura izango da, probako jaurtiketa kontuan hartu gabe.

37. ARTIKULUA

Bolariak bola jaurti eta honek harlauza pasatakoan, ez bada txaparro izan, botatako birla guztiak kontatuko dira.

Jaurtiketa baliozkoa izan dadin, bolak harlauza pasa eta iriste eremura erori beharko da. Bestelakorik gertatuz gero, tiraldiaren balioa zero izango da.

Birla bat, behin harlauzatik ateratakoan, berriro harlauzan sartzen bada, ez dira kontatuko botatako birlak.

38. ARTIKULUA

Birla txapatik kanpo geratzen bada, baina zutik badirau harlauza gainean, ez da botatakotzat hartuko.

Birla txapatik kanpo geratzen bada, eta zutik badago harlauzatik kanpo, botatakotzat hartuko da.

Harlauza gainean geratzen den birla bat, eskuineko ohol perimetralaren kontra edo ezkerreko ohol perimetralaren kontra geratzen bada, botatakotzat hartuko da.

VI. TITULUA. BERDINKETA HAUSTEA

39. ARTIKULUA.- Berdinketa haustearen ordena

Berdinketa hausteak lehiaketa bukatu eta berehala jokatuko dira. Lehiaketa bukatuta egoteko, izen emate epea bukatuta egon behar da eta azken bolaria bere tiraldia bukatuta egon beharko da.

Txapelketa ofizialetan, lehenengo txapelketaren berdinketa haustea jokatu da, eta hau bukatutakoan, lehiaketaren berdinketa haustea hasiko da.

Berdinketa haustea jokatzeko garaian, zorrotz jarraitu beharko da berdinketa haustea jokatu den eguneko izen ematearen ordena. Irizpide hau txapelketa guztietarako izango da baliagarri.

40. ARTIKULUA.- Berdinketa hausteetako jaurtiketa kopurua

Berdinketa hausteko jaurtiketa kopurua, lehiaketako jaurtiketa kopuruaren arabera izango da.

Taula honetan ikus daiteke:

LEHIAKETAKO JAURTIKETA KOPURUA	LEHENENGO BERDINKETA HAUSTEA	BIGARREN BERDINKETA HAUSTEA	HIRUGARREN BERDINKETA HAUSTEA
1+ X	X/2	X/4	X/X

Eragiketa horietakoren baten emaitza ez bada zenbaki osoa, goraka borobilduko da.
Adibidez: 6 jaurtiketako lehiaketako bigarren berdinketa haustea, $6/4=1,5 \rightarrow 2$ jaurtiketa.

Jarraian kasurik ohikoenak:

LEHIAKETAKO JAURTIKETA KOPURUA	LEHENENGO BERDINKETA HAUSTEA	BIGARREN BERDINKETA HAUSTEA	HIRUGARREN BERDINKETA HAUSTEA
1 + 8	4 jaurtiketa	2 jaurtiketa	jaurtiketa 1
1 + 6	3 jaurtiketa	2 jaurtiketa	jaurtiketa 1

VII. TITULUA. JOKALDI IRREGULARRAK. BALIOTZEA

41. ARTIKULUA

Tiraldian zehar, kanpoko arrazoiengatik gerta daitezkeen jokaldi irregularrak zehazteko, honakoak izan beharko dira kontuan:

- a) Bola jaurti aurretik birla guztiak jarrita egon beharko dira.
- b) Jokokoak ez diren arrazoiengatik gertatzen diren jokaldi irregularrak, bola eta birletan esku hartzeagatik gerta daitezke.

1.1. Bolarena:

- 1.1.1.** Bi birla-jartzaileek birla guztiak txapetan jarri, eta harlauzatik irten arte, bolariak ezingo du bola jaurti. Behin bolariak bola jaurtitakoan, birla-jartzaileek ezingo dituzte birlak ukitu, eta ezta harlauzan sartu ere, azkeneko birla erori eta gelditu geratu arte. Horrelakoren bat gertatuz gero, tiraldi hori baliogabetuko litzateke, eta bolariak berriz egin beharko luke jaurtiketa hori.
- 1.1.2.** Bolariak behin jaurtiketa egin badu, eta birlaren bat (txaparroa barne) bola harlauzara iritsi aurretik, edozein arrazoiengatik, erortzen bada, tiraldia baliogabetuko da, eta bolariak berriz egin beharko du jaurtiketa hori.
- 1.1.3.** Bolak, behin jaurtitakoan, pertsonaren batekin edo beste zerbaitekin tupust egiten badu harlauza pasa aurretik, jaurtiketa errepikatuko da.
- 1.1.4.** Bola, behin jaurtitakoan, eta baliogabetuta egonda edo txaparro izanda, birla-harlauza pasa aurretik pertsonaren batek geldituz gero, jaurtiketa errepikatu egingo da.
- 1.1.5.** Jaurtitako bola, birla-harlauza pasa aurretik zatitan hautsiz gero, tiraldia bertan behera geratuko da, eta baita lehiaketa ere.

- 1.1.6.** Jaurtitako bola, behin birla harlauza pasa ondoren zati txikitan hautsiz gero, botatako birla guztiak kontatuko dira. BAINA, beste tiraldirik geratuz gero, lehiaketa guztia bertan behera geratuko litzateke.

1.2. Birlena

- 1.2.1.** Bolariak behin jaurtiketa egindakoan, birlaren bat bere txapatik kanpo egongo balitz:

A KASUA: jaurtiketa hori baliogabetu egingo da, baldin eta mahaiko epaileak bola harlauzan sartu aurretik egiten badu erreklamazioa. Kasu horretan bolariak beste jaurtiketa bat egingo du.

B KASUA: epailea ez balitz konturatuko birla lekuz kanpo dagoela, eta bola harlauzan sartuko balitz, tiraldia baliokoa izango litzateke, eta botatako birlak bakarrik kontatuko lirateke.

- 1.2.2.** Kolpeen ondorioz, birlak puskatuko balira, jokaldia baliokoa izango litzateke eta botatako birla guztiak kontatuko lirateke. Puskatutako birlak unean bertan ordezkatu beharko lirateke.

- 1.2.3.** Ez dira kontatuko behin harlauzatik irtenda, berriro harlauzan sartutako birlek edo bolak botatako birlak.

- 1.2.4.** Botatako birlak ezingo dira hartu bere lekuan jartzeko, guztiak erabat geldi egon arte, eta bolak birla lekua pasa arte.

VIII. TITULUA. EGUTEGIA, ORDUTEGIAK ETA IZEN-EMATEA

42. ARTILULUA

Txapelketa ofizialetako egutegiak eta ordutegiak Batzar Orokorrean erabakiko dira.

43. ARTILULUA

Behin izen emateko ordutegia bukatzean, ezingo da bolaririk apuntatu, eta ezingo du apuntatu gabe dagoen inork bolarik bota.

44. ARTILULUA

Bolari bakoitzak behin bakarrik eman ahal izango du izena jardunaldi bakoitzean.

Tiraldiak izena emandako ordena berean egingo dira.

Izena eman duten bolariak, Mahaiko Epaileak deitutakoan egingo dute tiraldia.

Mahaiko Epaileak deitutakoan, deitutako bolaria ez badago bertan, hurrengo bolariari pasako zaio txanda. Bota ez duen bolariak, agertzen denean, izena eman duen azken bolariaren ondoren botako du.

Hala ere, bi bolariaren artean txanda aldatzeko aukera egongo, baldin eta bi bolariak ados jarri eta Mahaiko Epaileari jakinarazten badiote.

9. TITULUA. JOKALARIEN MAILA

45. ARTIKULUA.- Kalitate mailak

Lehen maila
Afizionatuak
Emakumezkoak

46. ARTIKULUA.- Adin mailak

Beteranoak
Jubenilak
Kadeteak
Infantilak

47. ARTIKULUA

Adina txapelketa jokatzeko den urteko abenduaren 31 kontuan hartuta izango da.

MAILA	ADINA
LEHEN MAILA	Mugarik gabe
AFIZIONATUAK	Mugarik gabe
EMAKUMEZKOAK	Mugarik gabe
BETERANOAK	60 edo gehiago
JUBENILAK	17-18
KADETEAK	15-16
INFANTILAK	13-14

X. TITULUA. JARRERA

48. ARTIKULUA

Bolariak beste bolarienganako, epaileenganako eta ikusleenganako errespetua izango dute. Eta kirol-gunearen eta materialaren erabilera egokia egin beharko dute.

Bolatokian dagoen inork ezingo du tiraldia egiten ari den bolaria eragotziko edo ez dio arreta galaraziko. Hau gertatuz gero, bolariak epaileari jakinarazi ahal izango dio.

Eragozten edo arreta galarazten ari den pertsona, bolaria izango balitz, hau zigortua izan ahalko da, epaileak jardunaldiko aktan hala jarritz gero.

Eragozten edo arreta galarazten ari den pertsona, ikuslea izango balitz, hau ohartarazi egin ahal izango da, eta bolatokia uztera gonbidatu; edo ekintza larria izanez gero, bolatokia uztera behartua izan ahalko da.

Epaileak aukera izango du tiraldia baliokoa den edo ez esateko, eta honenbestez, tiraldia errepikatu behar den edo ez esateko.

XI. TITULUA. EPAILEAK

49. ARTIKULUA. Zehaztasuna

Epaileak bolatoki barruko autoritate gorena dira, eta bertan, beraien erabakiak ezin izango dira eztabaidatu.

Epaileak, epaile lana egiteko egoki kualifikatuta egon beharko dira. Bete beharreko gutxieneko baldintzak honakoak dira:

- Araudia ezagutzea eta titulu bat izatea.
- Federatua izatea.
- Horretarako zigorrik ez izatea edo baimenik gabe ez egotea beharrezkoa izango da.

50. ARTIKULUA.- Epaile kopurua

Txapelketa ofizialetan bi epaile egongo dira: mahaiko epailea (epaile nagusia) eta oholeko epailea. Epaile nagusiaren iritzia izango da bestearen gainetik dagoena.

Oholeko epailea ordezkatzeko duen teknologia erabili ahal izango da, mahaiko epaileari laguntzeko bada, eta Federazioak onartutakoa bada.

51. ARTIKULUA

Epaileen erabakiak lehenbailehen jakinarazi beharko dira. Dudatan egonez gero, erabakia hausnartu ahal izango da.

Epaileek ez dute tiraldian zehar bolariekin edo ikusleekin eztabaidatuko auzipean den tiraldiaz. Epaileek beste bolari, ikusle eta epaileenganako errespetua izango dute; eta kirol-gunearen eta materialaren erabilpen egokia egingo dute.

Tiraldian zehar, bolari batek arauren bat hausten badu; edo bere ikusle, bolari edo epaileekiko jarrera, edo beste edozein gertaera kiroltasunik gabekoa bada, epaileak bolaria jendaurrean ohartaraziko du, bertara agertu direnak konturatzeko, eta behar adina aldiz egin beharko du.

Gainera, gertaera hori derrigor agertu beharko da aktan, eta ohartarazte hori Federaziora bidali beharko da.

Ohartarazte hori berriro gertatuko balitz, honek bolariaren kaleratzea suposatuko luke, eta ezingo litzateke beste bolari batez ordeztu.

Epaileen erabakia eztaba daezina izango da, eta epaileak berak ezin izango du gainerako pertsonen eraginik izan hartzen dituen erabakietan.

Epaileen erabakiak protestatzen dituzten ikusleek, iskanbila handia sortzen badute, lehenik alde egiteko eskaera egingo zaie, eta ondoren, alde egitera behartuak izango dira, klubeko federatu edo ordezkari baten eskutik, edota egongo balitz, segurtasuneko langilearen laguntzarekin.

Epaileek jardunaldiko akta sinatu beharko dute, emaitzak eta jardunaldiko gertaerak jasoko dituen akta.

XII. TITULUA. ALDI BATERAKO NEURRIAK

52. ARTIKULUA.- Bolatokien eta bertako materialaren homologazioa

Aldi baterako neurri moduan eta Federazioak eta bola modalitate honetan parte hartzen duten kirol klubek une honetan dituzten baliabideen erabilpen egokia egiteko helburuarekin, honakoa adierazten da:

Araudi honen aurretiko kirol-guneak eta materiala, Federazioak homologatuko ditu txapelketa ofizialetan erabiltzeko moduan, hauek hasi aurretik, kirol-gune eta materiala amortizatu arte.

53. ARTIKULUA.- Ategorrietako bolatokia

Ategorrietako bolatokiaren kasuan bakarrik, bere berezitasunengatik, eta ez bada aldatzen 37. artikuluko hirugarren paragrafoa, honela ulertuko litzateke: *“Birlaren bat, behin harlauzatik aterata berriro sartzen bada bertara, botatako birla guztiak hartuko dira kontuan.”*